

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Ogasun eta Finantza Saila**

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 158/2021 FORU DEKRETUA, abenduaren 14koa; honen bidez, 2022. eta 2023. urteetarako Batuz sistemari borondatez atxikitze baldintzak eta aplikatu daitekeen konpentsazioa ezartzen dira, eta aldaketak egiten dira tributu-erregelamendu batzuetan.**

Uztailaren 15eko 5/2020 Foru Arauaren bidez, ekonomia-jardueren etekinak kontrolatzeko sistema integral bat eta tributu-betebeharrak betetzen laguntzeko neurriak ezartzen dira; horretarako, aldatu egiten dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Araua eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorra. Hala, bada, foru-arau horrek Batuz deritzon proiektuaren euskarri diren hiru zutabeen arau-oinarriak ezarri zituen; Batuz sistema, zehazki, ekonomia-jarduerak egiten dituzten zergadunen edo entitateen kudeaketa integraleko eredua da. Hauek dira zutabe horiek: fakturazio sistemetan tresna teknologiko berriak ezartzea, zergadunek neurri teknologiko aurreratuak nahitaez erabili beharra erabakita; jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona guztiak, fisikoak zein juridikoak izan, informazioaren gainean dituzten betebeharrak parekatzea, eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua betetzeko betebeharra ezarrita; eta Bizkaiko Foru Ogasunak aitortzen zirriborroak jartzea zergadunen esku, beren zerga-betebeharrak errazago bete ditzaten, betiere beren jarduera ekonomikoen etekinak zergapetzen dituzten zerga nagusiei dagokienez.

Batuz deritzon proiektu horrek aurreikusita zeukan 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera bere eraginkortasun osoa zabaltzea; areago, aipatutako foru-arauan, proiektuari atxikitako zergadunek proiektua borondatez 2020tik aplikatzeko aukera ezarri zen. Baina, bizi garen Covid-19aren pandemiaren osteko testuinguruaren ondorioz, abenduaren 13)ko 6/2021 Foru Araua onartu behar izan da, zeinaren bidez onartzen baitira ekonomia suspertzeko neurriak, Batuz sistema borondatez aplikatzea sustatzeko neurriak eta beste zerga-aldaketa batzuk. Foru-arau horren II. tituluaren helburua da Bizkaiko Foru Ogasunak Batuz eredua ezartzearen alde egindako apustu tinkoaren eta hura aplikatzearen ondoriozko betebeharrak betetzeko zergadunek egin behar duten egokitzapen-prozesuaren arteko oreka ezartzea, kontuan hartuta zer konplexua den gaur egungo testuingurua.

Hala, II. titulu horrek jarraitutasuna ematen dio, 2022ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra arte, Batuz sistemari lotutako betebeharrak borondatez betetzeko epeari; ondorioz, epe hori betetzea erraztu eta bermatzen da. Halaber, Batuz sistemari borondatez atxikitzekeo pizgarri izan dadin, konpentsazio berezia sortu da, sistema horri lotutako betebeharrak borondatez betetzea modu ezeztazinean aukeratzen duten zergadunek aplikatu ahal izango dutena, hain zuzen ere, baldin eta aplikazio-aldirako —zeina 2022an eta 2023an hasitako zergaldietara luzatuko baita— erregelamendu bidez berariaz ezartzen diren baldintzak, forma eta epeak betetzen badituzte.

Foru Dekretu honen I. kapituluak hiru artikulua ditu, bi xedapen gehigarri eta lau xedapen iragankorrez osatzen direnak, eta horien bidez zehazten da aipatutako II. tituluari jasotako erregulazioa aplikatzeko behar den erregelamendu bidezko garapena.

Hala, 1. artikulua ezartzen du zer baldintza bete beharko diren 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera Batuz sistemari borondatez atxikitzeke; aukera hori jakinarazi beharko da, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan formulario bat beteaz. Jakinarazpen hori —zeina ezeztazina izango baita— berariaz ezarriko diren epeetan aurkeztu beharko da, eta, oro har, aurkeztu den egunaren hurrengo hiruhileko naturalaren lehen egunetik aurrera izango ditu ondorioak.



2. artikulua bidez, arestian aipatutako konpentsazio bereziaren zenbait alderdi garatu dira eta aplikatu daitezkeen berezitasun batzuk ere jasotzen dira: betebeharren betetzea hasia ezarritako ondorio-aldian edo jardueraren hasieran ez beste aldi batean, edo urte naturalarekin bat ez datozen zergaldien kasuan. Gainera, erabaki da konpentsazioa ez dela aplikatuko aipatutako betebeharrak betetzetik salbuesteko kasu jakin batzuetan, eta betebeharrak horiek ez betetzearen ondorioak ezarri dira.

Bestalde, 3. artikuluan aipatuenez, foru-agindu bidez ezarriko dira tributu-ereduak; ereduok direla eta, Batuz proiektuari lotutako betebeharrak borondatez betetzeari atxiki zaizkion zergadunek eskatu ahal izango dute autolikidazio- edo aitorten-zirriborroak eskura jartzeko.

Aurrekoarekin lotuta, lehen eta bigarren xedapenen bidez, Batuz proiektuari lotutako betebeharrak borondatez eta nahitaez aplikatzeko epe berriak egokitzeko behar diren egokitzapenak egin dira.

Azkenik, xedapen iragankorrei dagokienez, besteak beste, kasu hauek arautu dira: 2022ko zergaldiko lehen egunetik betebeharrak borondatez betetzeari atxikitze epe bat, bai eta 140 eredu (eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuko edukiaren berri emateko aitorten informatiboa) eta 347 eredu (hirugarren batzuekin egindako eragiketen urteko aitortzea) Batuz proiektuari lotutako betebeharrak borondatez aplikatzeko aldi aurkezteko erregimen bat.

Erregelamendu izaerako beste gai batzuei dagokienez, Foru Dekretu honen II. kapituluaren bidez (3 artikulua ere baditu), hainbat eratako aldaketak sartu dira, eta beharrezko egokitzapenak egin dira zenbait zerga-xedapenetan.

Hala, 4. artikulua aldatu egin du Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudia; hain zuzen, egokitzapen teknikorik egin da, akats bat zuzendu, eta eguneratu egin da enpresa-jantokietan enplegatuei egindako produktu merkatuen entregatzen diren zeharkako formulen zenbatekoa, lan pertsonalaren gauzako lansaritzat ez jotzeko.

5. artikulua, berriz, aldatu egin du Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga betebeharrak formalak araupetzen dituen Araudia, balore negoziatuei buruzko informazio-betebeharren baloreen balio nominalari buruzko informazioa ere jasotzeko, hala harmonizatuko baita gure inguruko administrazioen artean trukatu beharreko informazioa.

Azkenik, 6. artikulua aldatu egin du Bizkaiko Foru Aldundiaren urriaren 11ko 151/2016 Foru Dekretua (haren bidez, ezarri egiten dira, batetik, finantza-kontu jakin batzuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen egoitza fiskala identifikatu beharra eta, bestetik, kontu horiei buruzko informazioa eman beharra, elkarri eman beharreko laguntzaren eremuan), 4. artikuluan beste paragrafo bat sartzeko. Aldaketa horren bidez, aitorten informatiboa aurkeztu beharri eutsi nahi zaio, komunikatu beharreko informazio zehatzik ez badago ere, aitorten informatibo hori aurkeztu beharra betetzen dela kontrolatzeko zeregina errazteko.

Adierazi behar da Foru Dekretu honen izapidetzea arau hauetan xedatutakoaren arabera egin dela: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 141/2013 Foru Dekretua, azaroaren 19koa, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteari buruzkoa.

Era berean, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuak jasotzen dituen izapide guztiak bete dira.

Azaldutakoa dela bide, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau,



XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

**BATUZ SISTEMA BORONDATEZ APLIKATZEA SUSTATZEA****1. artikulua.—*Erregistro jakin batzuen osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea eta bortxaezintasuna bermatzen dituen sistema bermatzailea eta eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuaren betetzea borondatez aplikatzea***

1. Zergadunek beren borondatez aplikatu ahal izango dute, 2024ko urtarrilaren 1a baino lehen, ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroen osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea eta bortxaezintasuna bermatzen duen sistema informatikoa, bai eta eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuaren betetzea ere; emate-prestaziook eta liburua manu hauetan aipatzen dira, hurrenez hurren: Sozietateei buruzko Zergari buruzko 11/2013 Foru Arauaren 122 bis artikuluan, eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko Foru Arauaren 13 bis eta 114. artikuluetan.

2. Sozietateen gaineko zergaren zergadunek, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek (errentak establezimendu iraunkor bidez lortzen badituzte) eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek (jarduera ekonomikorik egiten badute), baldin eta aurreko atalean adierazitako borondatezko aplikaziorako aukera baliatu nahi badute, hala adierazi beharko dute, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera. Horretarako, haien esku jarriko den formularioa bete beharko dute, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez.

Aurreko paragrafoan adierazitakoa gorabehera, zergadunek errentak eratzkitzeko araubidea aplikatzen badute (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 11. artikuluan ezarritakoa), komunikazioa errentak eratzkitzeko araubideko entitateak berak egin beharko du.

3. Aukera baliatu nahi delako komunikazioak —zeina ezeztazina izango baita— aurkezten den egunaren hurrengo hiru hileko naturalaren lehen egunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta une horretatik aurrera bete beharko dira, eraginkortasunez, artikuluko honetan aipatzen diren betebeharrak.

Aurreko paragrafoan adierazitako komunikazioa behin baino ez da aurkeztu beharko, epe hauetako baten barruan:

- a) Urriaren 1etik abenduaren 5era bitartean, zergaldiko lehen hiru hilekoaren lehen egunean betebeharrak borondatez betetzen hasteko, ekitaldi ekonomikoa urte naturalarekin bat datorrenean, edo betebeharrak borondatez betetzen hasteko lehen hiru hileko naturalean, zergaldia urte naturalarekin bat ez datorrenean.
- b) Urtarrilaren 1etik martxoaren 5era bitartean, zergaldiko bigarren hiru hilekoaren lehen egunean betebeharrak borondatez betetzen hasteko, ekitaldi ekonomikoa urte naturalarekin bat datorrenean, edo betebeharrak borondatez betetzen hasteko bigarren hiru hileko naturalean, zergaldia urte naturalarekin bat ez datorrenean.
- c) Apirilaren 1etik ekainaren 5era bitartean, zergaldiko hirugarren hiru hilekoaren lehen egunean betebeharrak borondatez betetzen hasteko, ekitaldi ekonomikoa urte naturalarekin bat datorrenean, edo betebeharrak hirugarren hiru hileko naturalean borondatez betetzen hasteko, zergaldia urte naturalarekin bat ez datorrenean.
- d) Uztailaren 1etik irailaren 5era bitartean, zergaldiko laugarren hiru hilekoaren lehen egunean betebeharrak borondatez betetzen hasteko, ekitaldi ekonomikoa urte naturalarekin bat datorrenean, edo laugarren hiru hileko naturalean betebeharrak borondatez betetzen hasteko, zergaldia urte naturalarekin bat ez datorrenean.

**2. artikulua.—*Konpentsazioa***

1. Zergadunek Foru Dekretu honen 1. artikuluko 1. apartatuan aipatzen den aukera (betebeharrak borondatez betetzea) baliatzen badute —betiere, artikuluko horretan adierazitako moduan eta epean—, 2022. eta 2023. urteetan hasiko diren zergaldietan aplikatu



ahal izango dute —horretarako ezarritako baldintzak betez gero— Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren hogeita seigarren xedapen iragankorrean ezarritako tributu-konpentsazioa edo, hala badagokio, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren hogeita hamargarren xedapen iragankorrean xedatutakoa.

2. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren hogeita seigarren xedapen iragankorreko 2. apartatuaren taulatik ateratzen den ehuneko —betebeharrak borondatez eta eraginkortasunez betetzen hasten den momentua kontuan harturik atera ere— konpentsazioa kalkulatzeko erabiliko da hura aplikatu behar den zergaldi guztietan.

Zehazki, betebeharrak Foru Dekretu honen 1. artikuluko 3. apartatuan ezarritako ondorio-unearen ondoren eraginkortasunez betetzen hasten denean, konpentsazioa honela kalkulatu da: betebeharrak eraginkortasunez bete diren lehen hiruhileko natural osoaren lehen egunari aurreko paragrafoko taulako ehunekoetatik dagokiona aplikatuz.

Halaber, jarduera-hasieraren kasuan, hasiera hori urte naturala hasi ondoren gertatzen bada, konpentsazioa aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera kalkulatu da, Foru Dekretu honen 1. artikuluan adierazitako moduan eta epean borondatezko aplikazioarako aukera baliatu dela jakinarazi ondoren.

3. Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, zergaldia urte naturalarekin bat ez badator eta jardueraren hasiera ez bada, Foru Dekretu honen 1. artikuluko 3. apartatuan aipatutako komunikazioak aurkezpen-datari 3. apartatu horren bigarren paragrafoko a), b), c) eta d) letretan xedatutakoaren arabera dagokion hiruhilekoaren lehen egunetik aurrera izango ditu ondorioak; une horretatik aurrera bete beharko dira, eraginkortasunez, artikuluko honetan aipatzen diren betebeharrak.

Ondore horietarako, hiruhilekoen zenbatzea zergaldiko lehen egunean hasiko da.

Kasu horretan, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren hogeita seigarren xedapen iragankorreko 2. apartatuaren taulan ezarritako datetako bakoitza dela-eta hau ulertuko da: zergadunaren 2022ko eta 2023ko zergaldiak direla-eta aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatu ostean ateratako hiruhilekoetako bakoitzaren lehen egunari dagokiola.

Apartatu honetan xedatutakoa aplikatzeko bada eta betebeharrak eraginkortasunez betetzen hasten bada apartatu honen lehen paragrafoan ezarritako ondorio-unearen ondoren, honela kalkulatu da konpentsazioaren zenbatekoa: betebeharrak eraginkortasunez bete diren lehen hiruhileko natural osoaren lehen egunari dagokion aurreko paragrafoko taulako ehunekoak aplikatuz.

4. Salbueste hauetakoren bat aplikatu dezaketen zergadunek ezin izango dute aplikatu artikuluko honetan aipatutako konpentsazioa:

- a) Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 122 bis artikulua 3. apartatuko a) letran araututakoa.
- b) Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren 47 bis artikulua 5. apartatuan araututakoa; Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 23ko 203/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen erregelamendu hori.
- c) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 113 bis artikulua 4. apartatuko a) letran araututakoa.
- d) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudiaren 113 bis artikulua 4. apartatuan arautakoa; apirilaren 8ko 47/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen araudi hori.

5. Zergadunak 2023ko zergaldia amaitu aurretik ez baditu betetzen Foru Dekretu honen 1. artikuluko 1. apartatuan adierazitako betebeharrak, ezin izango du aplikatu artikuluko honetan aipatutako konpentsazioa betebeharrak borondatez betetzeko aldi iraunkorrean.

Aurreko paragrafoan adierazitako inguruabarra gertatzen bada eta konpentsazioa dagoeneko aplikatuta badago, itzuli egin beharko dira zenbateko konpentsatuak, Sozie-



tateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren hogeita seigarren xedapen iragankorreko 5. apartatuan ezarritako moduan, edo, hala badagokio, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5ko 13/2013 Foru Arauaren hogeita hamargarren xedapen iragankorreko 3. apartatuan ezarritako moduan.

6. Artikulu honetan araututako konpentsazioaren aplikazioa autolikidazioa edo aitortpena aurkeztean egin behar den aukera bat da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 128. artikuluan eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 105. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta ezingo da aldatu horretarako ezarritako borondatezko epea amaitu ondoren.

7. Bai sozietateen gaineko zergaren zergadunen kasuan, bai errentak establezimendu iraunkor bidez lortzen dituzten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunen kasuan, zerga-oinarrian —zeinaren gainean aplikatuko baita artikulu honetan araututako konpentsazioa— ez dira sartuko egotzi beharreko errenta positiboak, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 48. artikuluan eta hogeita laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat, ez eta foru-arau horren VI. tituluko III. kapituluan ezarritakotik eratorzen direnak ere.

### **3. artikulua.— Zirriborroak eskatzea borondatezko aplikazio-aldian zehar**

5/2020 Foru Arauaren bigarren xedapen gehigarriko Bat apartatuaren hirugarren paragrafoan xedatutakoaren arabera, eta erabilgarri dauden baldintza teknikoak kontuan hartuta, Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren foru-agindu bidez ezarriko dira tributu-ereduak —haiek direla-eta autolikidazio- edo aitortpen-zirriborroak eskura jartzeko eskatu ahal izango da— eta eskera hori Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egiteko epeak. Aipatutako foru-arau horren bidez, ekonomia-jardueren etekinak kontrolatzeko sistema integral bat eta tributu-betebeharrak betetzen laguntzeko neurriak ezartzen dira, eta, horretarako, aldatu egin dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Araua eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorra.

## II. KAPITULUA

### ERREGELAMENDUZKO BESTE ALDAKETA BATZUK

### **4. artikulua.— Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudia aldatzea; Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 8ko 47/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen araudi hori**

Aldaketa hauek egiten dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudian, zeina Bizkaiko Foru Aldundiaren 2014ko apirilaren 8ko 47/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsi baitzen:

*Bat.* Berridatzi egiten da 53. artikulua 2. apartatuko 1. betekizuna; honela geratzen da idatzita:

- «1. Zeharkako formulen zenbatekoak ezingo du gainditu eguneko 11 euroko kopurua. Eguneko zenbatekoa handiagoa bada, gauzazko lansari bat egongo da, gehiegizko zenbatekoaren bestekoa. Ogasun eta Finantzen foru diputatuak aldatu ahal izango du zenbateko hori.»

*Bi.* Berridatzi egiten da zortzigarren xedapen gehigarriaren lehen paragrafoa; honela geratzen da idatzita:

- «Zergari buruzko Foru Arauaren 42. artikuluko f) letran eta laugarren xedapen gehigarrian aipatzen diren biziarteko errenta aseguratuen gainean itzul-tze-mekanismoak, prestaziorako epe jakinak edo kontra-aseguru-formulak badaude heriotza gertatzen denerako, betekizun hauek bete beharko dira:»



*Hiru.* Berridatzi egiten da zortzigarren xedapen iragankorra; honela geratzen da idatzita:

«Zortzigarren Xedapen Iragankorra. — *Komunikazioak*

Araudi honen 74. artikuluan xedatutakoa gorabehera, zerga-administrazioak ohiko posta erabili ahal izango du zergadunekin harremanak izateko, nahiz eta administrazio horrek lehentasunez erabili beharreko bitartekoa Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa izan.»

**5. artikulua. — *Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga betebeharrak formalak araupeztzen dituen Araudia aldatzea; Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen araudi hori***

Berridatzi egiten da Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga betebeharrak formalak araupeztzen dituen Araudiaren 50. artikuluko 1. artikulua a) letra; abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen araudi hori. Honela geratzen da idatzita:

«a) Abenduaren 31n merkatu antolatuetan negoziatutako erakunde juridikoen kapital sozialaren edo funts propioen akzio edo partaidetzen titular izan diren pertsona eta erakundeen izen-deiturak edo sozietate izenak edo izen osoak eta identifikazio fiskaleko zenbakiak. Gainera, titular bakoitzak duen akzioen eta partaidetzen kopurua eta motak zehaztu behar dira, eta haien balio nominala eta haien balioa ere bai; zeinak arau hauen arabera konputatuko baita:

— Merkatu antolatuetan negoziatutako erakundeen kapital sozialaren edo funts propioen akzioak eta partaidetzak, inbertsio kolektiboko erakundeenak izan ezik, Ondarearen gaineko Zergari dagokionez eman behar zaien balioaren arabera konputatuko dira.

— Merkatu antolatuetan kotizatzen duten erakunde juridikoen jaulki baina oraingoz kotizazio ofizialean onartuta ez dauden akzio berriak harpidetzen badira, akzio horien balioa honako hau izango da: akzio horiei Ondarearen gaineko Zergari dagokionez eman behar zaien balioa.

— Ordaintzeko dauden kapital-zabalkuntzei dagokienez, akzioen balioztatzea aurreko arauari jarraituz egingo da, erabat ordainduta baleude bezala, ordaintzeko dagoen zatia subjektu pasiboaren zor moduan sarturik.»

**6. artikulua. — *Bizkaiko Foru Aldundiaren urriaren 11ko 151/2016 Foru Dekretua aldatzea; haren bidez, ezarri egiten dira, batetik, finantza-kontu jakin batzuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen egoitza fiskala identifikatu beharra eta, bestetik, kontu horiei buruzko informazioa eman beharra, elkarri eman beharreko laguntzaren eremuan***

Paragrafo bat gehitzen zaio, amaieran, Bizkaiko Foru Aldundiaren urriaren 11ko 151/2016 Foru Dekretuaren 4. artikuluari (Foru Dekretu horren bidez, ezarri egiten dira, batetik, finantza-kontu jakin batzuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen egoitza fiskala identifikatu beharra eta, bestetik, kontu horiei buruzko informazioa eman beharra, elkarri eman beharreko laguntzaren eremuan). Honako hau ezartzen du azken paragrafo horrek:

«Dena den, finantza-erakundeek ere aurkeztu beharko dute informazio-aitorpen hori, nahiz eta azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuak (haren bidez, finantza-kontu jakin batzuen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen egoitza fiskala identifikatu beharra eta kontu horiei buruzko informazioa eman beharra ezartzen da, elkarri eman beharreko laguntzaren eremuan) bere eranskinean jasotzen dituen behar bezalako ardurari buruzko arauak aplikatu ondoren honako hau ondorioztatzen duten aurreko paragrafoko foru-aginduan ezarritako moduan: ez dagoela informazioa komunikatu beharra duen konturik, eranskin horren VIII. ataleko D apartatuarekin bat.»



**XEDAPEN GEHIGARRIAK****Lehen Xedapen Gehigarria. — Aplikatu beharreko araudia**

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Araua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Araua eta Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga betebeharrak formalak araupetzen dituen Araudia (Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsia) direla-eta Foru Dekretu honen I. kapituluaren egindako aipamenak 2024ko urtarrilaren 1ean manu horiek indarrean izango duten bertsioei egindakotzat joko dira.

**Bigarren Xedapen Gehigarria. — Batuz proiektuari lotutako tributu-betebeharrak**

Ondoren adierazitako aldaketak egiten zaizkio Bizkaiko Foru Aldundiaren irailaren 8ko 82/2020 Foru Dekretuari, zeinaren bidez Batuz proiektuaren tributu-betebeharrak garatzen baitira, hauek aldatuta: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudia, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamendua, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamendua, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebeharrak formalak araupetu dituen Araudia, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudia eta Fakturazio-betebeharreari buruzko Araudia. Hona aldaketak:

*Bat.* 2024ko urtarrilaren 1era aldatzen dira 1., 2., 3., 5. eta 6. artikuluetako lehen paragrafoan ezarritako ondorio-datak.

*Bi.* 4. artikuluko lehen paragrafoa ere aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«Ondoren adierazitako aldaketak egiten dira Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebeharrak formalak araupetzen dituen Araudian, zeina Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsi baitzen, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Bat eta Bi apartatuen kasuan, eta 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Hiru eta Hogeita Bost bitarteko apartatuen kasuan.»

*Hiru.* Edukirik gabe uzten da xedapen gehigarri bakarra.

**XEDAPEN IRAGANKORRAK****Lehenengo Xedapen Iragankorra. — Betebeharrak borondatez aplikatzeko aukera baliatu nahia jakinarazteko ezohiko epea**

1. Foru Dekretu honen 1. artikuluko 3. apartatuan ezarritako epeak gorabehera, 2022ko zergaldiko lehen egunean betebeharrak borondatez betetzen hasi nahi dutenek hala jakinarazi beharko dute, Foru Dekretu hau indarrean jartzen den egunetik 2022ko urtarrilaren 14ra bitartean.

Zergadunen zergaldia urte naturalarekin bat badator eta aurreko paragrafoan adierazitako jakinarazpena 2022ko urtarrilaren 2tik 14ra bitartean egiten bada, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, eta egun horretatik bete beharko dira, eraginkortasunez, Foru Dekretu honen 1. artikuluko 1. apartatuan aipatutako betebeharrak, kasu honetan izan ezik: Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 122 bis artikuluko 1 apartatua eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 113 bis artikuluko 1 apartatua ezarritako betebeharraren kasuan; izan ere, kasu horretan, jakinarazpena egiten den unetik bete beharko dira betebeharrak.

Atal honetan aipatutako kasuan, konpentsazioaren zenbatekoa % 15eko ehunekoa aplikatuz kalkulatu da.

2. Foru Dekretu honen 1. artikuluko 3. paragrafoko b) idatz-zatian ezarritako Batuz sistemari lotutako betebeharrak borondatez betetzeko aukeraren jakinarazpena aurkezteko epea ez da aplikatuko 2022ko zergaldiari dagokionez. 2022ko zergaldian idatz-zati horretan ezarritako kasuren batean dauden zergadunek jakinarazpen hori aurkeztu beharko dute 2022ko otsailaren 1etik martxoaren 5era bitartean.

**Bigarren Xedapen Iragankorra. — Kontabilitate-mugimenduen kapitulua**

Betebeharrak borondatez betetzea (Foru Dekretu honen 1. artikuluko 1. apartatuan aipatutakoa) aukeratzen duten sozietateen gaineko zergaren zergadunek ez dute aurkeztu beharko kontabilitate-mugimenduen kapitulua, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga betebeharrak formalak araupetzen dituen Araudiaren 39. artikuluan jasoa (Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen araudi hori), 2022ko zergaldikoari dagokiona.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez da eragozpen izango Foru Dekretu honen 3. artikuluan aipatutako konpentsazioa aplikatzeko, horretarako eskatzen diren gainerako baldintzak betetzen badira.

**Hirugarren Xedapen Iragankorra. — Pertsona fisikoen eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua aurkeztea**

Betebeharrak borondatez betetzea (Foru Dekretu honen 1. artikuluko 1. apartatuan aipatutakoa) aukeratzen duten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek ez dute aurkeztu beharko eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuko edukia duen informazio-aitorpenarako 140. eredua, zeina Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren ekainaren 16ko 1260/2014 Foru Aginduaren bidez onetsi baitzen.

Dena den, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek, baldin eta 2022ko urtarrilaren 1aren ondoren eraginkortasunez hasten badira betetzen betebeharrak borondatez (Foru Dekretu honen 1. artikuluko 1. apartatuan aipatutakoa), betebeharrak hauek izango dituzte:

- a) Eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuko edukia duen informazio-aitorpenarako 140. eredua aurkeztu beharko dute, zeina Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren ekainaren 16ko 1260/2014 Foru Aginduaren bidez onetsi baitzen, bertan sarturik Foru Dekretu honen 1. artikuluko 1. apartatuan aipatutako betebeharrak eraginkortasunez betetzen diren lehen hiruhileko natural osora arte egindako eragiketak.  
Eragiketei dagokien ekitaldiaren hurrengo urteko otsailean egingo da aurkezpena.
- b) Eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua bete behar dute (liburu hori Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 114. artikuluan aipatutakoa), Foru Dekretu honen 1. artikuluko 1. apartatuan aipatutako betebeharrak eraginkortasunez bete diren lehen hiruhileko natural osoaren lehen egunetik.

**Laugarren Xedapen Iragankorra. — Hirugarren batzuekin egindako eragiketen urteko aitortpena aurkeztea**

Betebeharrak borondatez betetzea (Foru Dekretu honen 1. artikuluko 1. apartatuan aipatutako aukera) aukeratzen duten zergadunek ez dute aurkeztu beharko hirugarrenekin egindako eragiketen urteko aitortpena egiteko 347. eredua, zeina Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren urtarrilaren 21eko 185/2015 Foru Aginduaren bidez onetsi baitzen.

Dena den, sozietateen gaineko zergaren zergadunek, baldin eta 2022. urtean urtarrilaren 1aren ondoren eraginkortasunez hasten badira betetzen betebeharrak borondatez (Foru Dekretu honen 1. artikuluko 1. apartatuan aipatutakoa), 2023ko otsailean aurkeztu beharko dute hirugarrenekin egin dituzten eragiketen urteko aitortpena egiteko 347. eredua, 2022. urte naturalean egindako eragiketa guztiei dagokienez, non eta ez duten balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako likidazio-aldi bat, hil naturalekin bat datorrena, edo non eta ez duten borondatez hautatu balio erantsiaren gaineko zergako erregistro-liburuak kudeatzea Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez.

Halaber, sozietateen gaineko zergaren zergadunek, baldin eta 2023. urtean urtarrilaren 1aren ondoren eraginkortasunez hasten badira betetzen betebeharrak borondatez (Foru Dekretu honen 1. artikuluko 1. apartatuan aipatutakoa), 2024ko otsailean aurkeztu beharko dute hirugarrenekin egin dituzten eragiketen urteko aitortpena egiteko 347. eredua, 2023. urte naturalean egindako eragiketa guztiei dagokienez, non eta ez duten





balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako likidazio-aldi bat, hil naturalarekin bat datorrena, edo non eta ez duten borondatez hautatu balio erantsiaren gaineko zergako erregistro-liburuak kudeatzea Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa bidez..

**AZKEN XEDAPENAK****Azken Xedapenetako Lehena. — Indarrean jartzea**

Foru Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, 4. artikuluan ezarritakoak 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako izango ditu ondorioak; 5. eta 6. artikuluetan xedatutakoa, berriz, aurreko urteko informazioa dela-eta 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera aurkeztu beharreko informazio-aitorpenei aplikatuko zaie.

**Azken Xedapenetako Bigarrena. — Gaikuntza**

Ahalmena ematen zaio Ogasun eta Finantzen foru diputatuari, Foru Dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Bilbon, 2021eko abenduaren 14an.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua,  
JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ

Ahaldun Nagusia,  
UNAI REMENTERIA MAIZ